


1-Taldean kontakatzea



- ◆ Kontatu nahi duzuen ateraldi bat **hauta** ezazue.
- ◆ Ateraldi horren **datu garrantzitsuak** idatz itzazue entsegu-kaierean.
 - ➔ Bisita gidatua ote zen (museo, gaztelu)? Kirol ateraldia zen? Piknika hartu ote zenuten?
 - ➔ Anekdotarik ba ote da kontatzeko? (*aro txarra ala ona, piknika denboran...*)
 - ➔ Zer pentsatu duzue? Libertitu zarete? Enoatu? Zer ikasi duzue?
- ◆ Hitzaldia **antola** ezazu.
 - ➔ Ateraldi horren tokia eta helburua aipa itzazu lehenik.
 - ➔ Eguna nola iragan zen konta ezazue, denbora antolatzaileak erabiliz (*goizean, eguerditan, arratsaldean...*) edo denbora aditzondoak (*lehenik, gero, berantago, beraz, orduan, azkenean...*)
 - ➔ Tokia deskriba.
 - ➔ Iraganaldia erabil.
 - ➔ Zuen iritzia eman ezazue: *ene ustez, pentsatzen dut, ene iduriko, erran nezake...*
- ◆ Lagunei konta iezaiezue azkar mintzatuz eta ontsa **ahoskatuz**.

2-Eleberri baten kontakatzea

- ◆ Hiru talde osa.
- ◆ Hiru liburu hauetarik bat hauta ezazue eta eleberrian kontatzen dena imajina ezazue irakurria ez baldin baduzue ere (irudika ezazue).
- ◆ Talde bakoitzak bere liburua kontatuko du.



3- Gertakari baten kontakatzea

- ◆ Gertakari berezi baten lekuko izan zara (karrikan, ikastolan, sartze egun batez, istripu bat, gertaera, makur, ikasle berri baten etorrera...)
- ◆ Solasaldia antola ezazu: lehenik, bat batean, gero, ondotik, orduan...

4- Kolegioko lehen egunaren imajinatzea eta kontakatzea

- ◆ Eskola sartzea irudika ezazu eta kolegioko lehen orenak konta itzazu bizi izan bazenitu bezala.

5- Film baten kontakatzea

Film bat hauta, irudika ezazu eta konta (ez baduzu ikusia ere).

